



2011KO EKAINAREN 8KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako ekainaren zortzian, arratsaldeko sei terdietan, Lazkaoko Udaletxean, Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, soil soilik aurreko akta onartzeko. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo eta Iñaki Saldaña Herrero.

Xanet Barreras Jauregi zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2011ko maiatzaren 11n egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

